

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

991

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 9koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Mekanikari gainbegiralearen lanpostuan enplegua finkatzeko prozesu berezian parte hartzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko irailaren 8an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren arautzeko nola bideratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko irailaren 13an.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko azaroaren 17an emandako beste agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Mekanikari gainbegiralearen lanpostuko prozesu bereziko deialdia egin zen, eta prozesu horretako oinarri espezifikoak onartu ziren. Agindu hori ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko azaroaren 23an.

Hautaketa-prozesuari aplikatuko zaion 10. oinarri orokorrak ezartzen du ezen, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak egiteko epea igarota eta erreklamaziook ebatzita, IVAPEko Zuzendaritzak ebazpen bat emango duela, eta, hor, agindua emango dela argitara emateko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak. Zerrenda horietan, adieraziko da zein den hautagaiak baztertzeko arrazoia, hala dago-kionean, bai eta hautagaiak zer modalitatetakoak diren, eta, finkatzeko prozesu berezian kasuan, zer txandatakoak.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Mekanikari gainbegiralearen lanpostuan enplegua finkatzeko prozesu berezian parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

2. artikulua.– Agintzea onartutako zerrendak argitara eman daitezela hautaketa-prozesuko web-orriko Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

3. artikulua.– Identifikazio elektronikoko bitartekorik ez duten pertsona guztiei gogorarazten zaie BakQ txartela emateko gaitutako zentroetara jo dezaketela baldin eta hautaketa-prozesurako eman zitzaizen aldi baterako erabiltzailea baino ez badute. Izan ere, aldi baterako erabiltzaile hori

erabilita, identifikazio elektronikoko bitarteko bat lortu ahal izango dute hasiera-hasieratik egiteko hautaketa-prozesuko jarraipen elektronikoa.

Hala eta guztiz ere, prozesuko proba egin, eta norbere burua identifikatzen duten guztiek aukera izango dute identifikazio elektronikoko bitarteko bat lortzeko hautaketa-prozesuaren jarraipena egiteko. Bitarteko hori lortzeko, instantzia aurkeztutakoan lortutako aldi baterako erabiltzailea baliatu beharko dute.

4. artikulua.– Hautaketa-prozesuko proba Gasteizko UNEDen egingo da, 2023ko martxoaren 30ean, 12:00etan.

Proba egitera joaten diren pertsonak nor bere burua aurkeztu beharko dute dokumentazio nahikoarekin (NANA, pasaporte, gidabaimena).

5. artikulua.– Gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoa, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar daskioke, edo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 9a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.